

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroekin harreman zuzenik izango ez dugunez, **sare sozialen** bidez gure irudia bizirik mantenduko dugu. Alde batetik, **Instagram, YouTube** eta **web orrialdea** erabiliko ditugu haien interesa pizteko. Astero bideo bat igoko dugu, errezeta, trikimailu edo konplementu berrien informazioari buruz. Halaber, bideotutorialak egingo ditugu produktuaren erabilera optimoa lortzeko.

Igotzen ditugun **errezetak**, bezeroek haien NFW-ean sartzeko aukera izango dute, kargadorearen kablearen bidez. Modu honetan, aukera gehiago izango dituzte haien janaria hobetzeko.

Bideotutorialetan, azalduko dugu nola erabiltzen den orokorrean NFW-a, eta erabilera bakoitzeko bideo zehatzagoak egingo ditugu. Gainera, errezeta bakoitzeko bideoak ere egingo ditugu, etxetik jarraitzeko.

Bestalde, **astelehenetik ostiralera, 9:00etatik, 16:00etara arte deitu** ahal digute edozein arazorik izatekotan.